TTiPi-TTAPA

1989ko EKAINA

27. ALEA

BERRIAK

2.- Bera
4.- Lesaka
6.- Etxalar
7.- Igantzi
8.- Goizueta
9.- Zugarramurdi
12.- Ituren
13.- Zubieta
16.- Leitza
18.- Sara

ARTIKULUAK, IPUINAK,...

20.- Gu Ttipi-Ttapa, eta zu?
22.- Endara
24.- Nekazalturismoa
27.- Donezteben aste kulturala, noiz?
28.- Bortzirietako zabortegia
30.- Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
33.- Ikastaroak
34.- Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra
36.- Nork defendatuko ditu gure ikastola ttikiak
38.- KORRIKA 6
40.- Josetxiki
44.- Inguru giroa Bortzirietan
46.- Komikia
48.- Nafarroako Bertsolari Txapelketa

BERA

JUBILATUEN BESTA.

Apirilaren 9an ospatu zuten guraso, osabaizeba eta gainontzekoek beraien eguna. Eguerdiko hamaoietan meza eta apezaren sermoia editu ondoren bazkari ederra Ansonea jatetxean: itxaski paella, oildotsa erria ensaladarekin, etxean egindako kopa, txanpaina, kafea, kopa, puroa eta xigarrotxoak. Ederki hornitu eta gero dantzaldia Sein akordionistaren eskutik.
Eta hantxe ibili ziren dantza eta dantza gure "martxosoak" hogei urteko gazteak bailitzan.

URA.

Uraren arazoak direla eta Matxain errekatik hartzeko asmoz egin beharrezko lanen proiektua prestatu da. Proiektu honek ia 233 milioiko aurrekontua du, horren % 90a Nafarroako Gobernuak ordainduko dielarik eta gainontzeko % 10a Udaletxeak. Ur hau, karreteraraino jaitsiz, Bidasoa kalean zehar azera azpitik joanen da, eta azera hau arront hondaturik dagoenez, tuberia sartu ahala, berritu eginen dute. Ondoren, "Estankoko curva" pasa eta, Udaletxeko plazaraino igoko da eta handik Ezpondakobordako depositoraino. Lan hauek aurten hasiko dira eta honela 25 urtetako hornidura izango dela uste da.

SALAKETA.-

Zentralen ur hartzea dela eta Bidasoa ibaiaren ur eskasia salatu dute Arrantzale eta Ehiztarien Elkarteak eta Izokinen Kofradiak ere. Bidasoa, Euskal Herriko ibai izokidun bakarra, inoiz baino ur guttiagorekin zetorren, euri eza zela eta. Nahiz eta izokiak arraultzak jartzen ari , zentralek ura hartzen jarraitu dute. Berako Udala salaketaren alde azaldu zen.



Bidasoa ibaia.

KORRIKA.-
Apirilaren 14tik 15eko goizaldean ailegatu zen korrika gure herrira. Gure Txokoa Elkartean txokolatia eta boiloak gosaldu ondotik Endaltsa aldera abiatu zen, nahiz eta bakar batzuk lo egitera alde egin zuten.

GREBA.-

Apirilaren 19 eta 20an Lanbide Eskolako ikasleek greba egin zuten. Greba honen arrazoia lantegitan praktikak egiteko moduarekin ados ez egotea da. Eskolak kontrato bat sinatzen du lantegi batzurekin zenbait ikasleek bertan praktikak egin ditzaten. Ikasleek diotenez lantegiak honetaz probexten dire, honela esku lan merkea lortuz.

BIDAIA.-

Apirilaren 25ean eta 26an Arkupeko kideek bidai bat egin zuten. Lehendabiziko egunean Baztan eta Etxalarkoak joan ziren. Bigarrenean, berriz Arantza, Igantzi, Bera, Doneztebe eta Sunbilla, bi egunez 350 bat lagun. Bidaian Hendaia, Donibane Lohitzune, Mia-

rritzen barna Berara itzuli ziren, ondoren, Ansonea jatetxean bazkaldu zutelarik.

NAFARROAREN EGUNA.-

Baigorrin ospatzen den Nafarroaren Egunean bertara ibilaldia antolatu zuten Larun mendi taldekoek. Goizeko zazpiretan abiatu ziren ikastolako atetik kotxez Erratzuraino joanez. Han Elizondoko mendigozaileekin 8ak aldera mendiz abiatzeko Baigorriraino.

EUSKARA BATZORDEA.-

Bortzirietako Euskararen Batzordeak egindako txosten baten arabera, 1989an euskararen alde eginen diren ekintzak 9.270.000 pezetetako aurrekontua dute. Txosten hau Arantza, Bera, Lesaka, Igantzi eta Etxalarreko Udalei bidali zaie.
Diru hau honela banatuko da: koordinadore baten kontratazioa (2 milioi), Euskal Astea (695.000 pezeta) Nafarroa Oinez eta Herri Urrats (bakoitzari 110.000 pezeta), Kilometroak, Ibilaldia eta Araba Euskaraz (bakoitzari 25.000 pezeta), Bertsolari Elkartea (95.000 pezeta), UEU (150.000 pezeta), AEK (1.100.000 pezeta), (ttipi-ttapa (400.000 pezeta), Korrika (125.000 pezeta) eta bertzeak (250.000 pezeta). Itzultzaile bat kontratatzeko asmoa dago ere (2.000.000), nahiz eta hau eta koordinatzailea biak pertsona berazan zitezkeela ikusten den.
Gainera, sentsibilitate kanpaina milioi erdia kostako da eta kale eta auzoen izenak euskaratzea milioi terdi.

TXERTAKETA.-

Osasun Zentroak tetanoaren aurrako kanpaina bati ekin dio, 60 urtetik gorakoei zuzendua, hain zuzen ere.
Maiatzaren bian hasiak dira txertatzen lehenengo aldiz. Iaz txertatuak berriz, uztailan txertatu beharko dituzte bigarren aldiz. Bigarren txertaketa honek 5 urtetarako balio du eta horren ondotik bertze bat jasoko dute, hamar urteko balioarekin.

SEGAPOTO IRRATIA.-

Bi urtez isilik egon ondoren berriro ere bere emanaldiak eskeintzen hasia zaigu Segapoto Irratia. Oraingoz astearte eta ortzilaretan bertzerik ez baldin bada aritzen ere, bere asmoa ahalik eta programazio zabalena eskeintzea da.
Asteartetan, eguerdiko 1,30etatik 3,30etara kirolak eta kultura eskeintzen digute eta 7,30etatik 8,30etara inguruko berriak. Ortziraletan berriz, gaueko 9,30etatik aintzina musika soinua. Maiatzaren 2an egindako bilera batean azaldu zen bezala, bere helburu nagusia Bortzirietara zabaltzea da. Arazo ekonomikoak direla eta oraingoz ezin dute zabaltze hau lortu, honetarako behar dituzten tresnak erosteko dirurik ez bait dago. Orain Beran, Lesakan eta Igantzin (zenbait baserritan) bertzerik ez baldin bada aditzen ere, heuren asmo nagusia datorren udazkenerako gainontzeko herrietan ere aditzea da. Beraz, zuen laguntzaren zai daude. Parte hartu nahi duzuen guztiok Lanbide Eskola zaharrera agertu edo dei telefono honetara 63 04 53 . Eta entzun nahi duzuenak konektatu 107,5 FMean.



Barianteko obrak, Zalainen.

LESAKA

Beti Gazteko neskak.

BETI GAZTEKO NESKAK AURRERA JARRAITZEKO ASMOTAN

Duela urte bat sortu zen Lesakan, futbolean jokatzeko neskak osatutako futbol talde bat. Hamabostez hain zuzen ere. Denak hamasei eta hogei urte bitartekoak."Gure artean hagitz giro ona dago, ziur beste taldeetan ez dagoela gure artean aurkitzen den xaltxa", nahiz eta partidu bat 10 eta 0 galdu, hoberena, afaria egitea da; eta afaria egiteko arrazoiaren bat behar badugu, 12 gol ez digutela sartu izanen da; honelakoa da guk eramaten dugun filosofia.

Aurten partidu ugari jokatu ditugu: Gipuzkoako liga, (Gipuzkoako) kopa eta orain beste partiduren bat.

Jendeak oso txarrak garela erraten du, baina nik uste dut hori ez da egia, gertatzen dena zera da: oso zorte txarra daukagula eta golak hagitz erraz sartzen dizkigutela. Hala ere, urte guztian bi partidu irabazi ditugu: "Okendo" (Mondragon), 3-1 eta "Urki"-ren aurka (Eibar) 4-1 etxean. Kanpoan ere partidu batean , Urkiren aurka hain zuzen bana berdindu genuen.

Gol gehien sartu dizkigutenak, "Oiartzun"goak eta "Añorga"koak dira; ez da harritzekoa, izan ere talde hauek urte asko bait daramatzate futbolean, eta gu berriz hasi berriak.

Azken denboraldian batzuk taldea utzi dutela ere aipatu beharra da. Gure taldean ere, baita profesionaletan bezala, halako gauzak gertazen bait dira. Arrazoi hau dela eta, taldea desagertzekotan ibili da, baina aurrera jarraitu nahi genuenak, gogor eginez segitu egin dugu.

Klasifikazioari degokionez gure taldean, 5 taldetik, 4. gelditu gara. Lehengo urtean azkenekoak gelditu ginen eta aurten azken-aurrekoak.

Oraingoz, hurrengo urtean ere jarraitzeko asmoa dugu, gainera Beti-Gazteko batzordeak lagunduko digula esan digu, arazo bakarra jokalari eskasia da. Baina ikusiko duzue, aurrera jarraituko dugu eta gainera klasifikazioan lehenengo postuetan geldituko gara. Aupa neskak!

"IDRISKO AULKITIK" "FONDOS RESERVADOS"era.

Hauxe da Lesakako folk-rock taldeak egin duen aldaketa bat -izenarena alegia- baina ez bakarra, gitarra jotzen zuen Etxart "Zenzerrok" taldera joan bait zen.

Talde honen partaideak ondoko hauek dira: Bantxi, bateria jotzen duena; Isidro, bajoa; Iñigo, gitarra eta armonika; eta Kapu teklak eta ahotsa.

Dagoeneko, Lesakan kontzertu pare bat eman dituzte, Baita bi kantaz osatutako maketa bat grabatu ere.

Izen berriarekin hasi zirenez geroztik, hiru abesti sortu dituzte. Heurek egiten duten Musika "lasaia, eta bertzeek egiten ez duten modukoa da" Kapuren eritziz.

Aipatzekoa baita, entsaiatzeko lokal falta, bertzerik ezean borda baten egitera beharturik daude eta.

ARRANO MENDI TALDEA

Duela denbora gutti (hiru hilabete eskas), sortutako taldea dugu hau Martxoaren bortzean egin baizuen bere lehenengo ateraldia, Kopakarrira, hain zuzen ere.

Hasieratik jende aunitz elkartu zen igande goizetan inguruko mendiak ezagutu edo hobeki erranda, oinez ezagutzeko. Bide bat, kirola eginez. Bertze batzuek hiru edo lau igande geroago hasi ginen, larunbata gauetan etxean gelditzen ez gaude ohituta eta.

Hauetxek dira orain arte egindako irteerak:

- Martxoak 5, Kopakarri
- Martxoak 12, Otxango-Nabaz
- Martxoak 19, Sastrin-Hiruburuta
- Apirilak 2, Bianditz
- Apirilak 9, Sastrin-Igantzi
- Apirilak 16, Larun

- Apirilak 23, Gardelkopagoeta-Endaltsa
- Apirilak 30, Artikutza
- Maiatzak 7, Frain
- Maiatzak 14, Senpere
- Maiatzak 21, Mendaur

Herri Urratsera egindako irteera benetan polita izan zen. Berako Larun mendi taldekoak eta Arranokoak elkarrekin joan bait ginen, ehunen bat lagun denetara. Bidean arazo ttiki batzuk izan bagenituen ere, denok ailegatu ginen lehentxago edo geroxeago.

Ez dut aipatu gabe utzi nahi, gure artean mendigoizale bitxi bat ere badugula. "Yogi" deitzen den ingeles bat. Hogei urtez San Ferminetan gure herrira etorri ondoren, betirako gelditzea erabaki du, eta gurekin igandero mendira joaten da. Inoiz mendian ibiltzekoa baldin bada ere, beti ailegatzen da helmugara.

Anima zaitez zu ere!

LANTEGIAN ERE EUSKARA INDARTUZ

Apirilaren 20an, gure lantegian euskarak bizi duen egoera aztertzeko eta irtenbide bat emateko asmoz, zenbait lankide bildu ginen komiteko egoitzan.

Bereiziki bi atal nagusi aztertu ziren:

1.- Lantegian ere euskara eta euskal kultura bultzatzeko lan talde bat sortzearen beharra.

2.- Aurtengo Hitzarmenean euskarari dagozkion puntuei buruz zenbait xehetasun finkatzea.

Lehendabiziko puntuari dagokionez erran behar bileran garbi gelditu zela lantegian giro euskaldun bat sortzeko beharrezkoa dela gogor saiatzea, eguneroko lan bat egitea bai lankideen artean euskaldun kontzientzia sortaraziz eta baita ere enpresaren jokaera erdarazaleak gaitzetsiz, ez bait du Hitzarmenak erraten duena ere betetzen. Adibidez enpresak, agiriak, txartelak eta gainerako komunikatuak euskaraz eta erdaraz atera behar lituzke Hitzarmenaren arabera, baina ez du betetzen hori ere, denak erdara hutsean argitaratzen bait ditu.

Beraz lan talde honen funtzionamendu erregular baten beharra argi geratu zen eztabaidaren ondoren, egiteko ugari ba bait dago gure lantegian.

Bigarren atalean berriz, orain Hitzarmena negoziatzen ari garenez, plataforman agertzen diren eskakizunetaz aritu ginen. Hemen garbi geratu zen lehen dauzkagun eskubideak defendatzea ezinbestekoa dugula, Enpresak proposamen zehatzik ez badu egin ere, euskara ikasteko laguntza bezala dagoen diru kopuru hori dena gastatzen ez denez, hortik kendu egin behar duela adierazi bait du. Horrelakorik ez daiteke inolaz ere onar, jakin badakigu,diruarekin bakarrik euskara ez dugula salbatuko ere, beharrezkoa dela zenbait ekintza antolatzeko.

Arrano Mendi Taldekoak bizkor dabiltza mendiz-mendi.

Lesaka.

Proposamen gisa, lehendabizikoa Hitzarmenean dauden konzeptuak zabaltzea izango litzake. Orain matrikula eta liburuak besterik ez da ordaintzen.

Enpresak "sobera" dagoela erraten duen diru kopuru horren euskararen aldeko erabilpena eman lekioke aisa, adibidez :

- Kontzientziazio kanpainak egiten.
- Euskal liburuz osatutako liburutegi bat antolatzea, langileek erabiltzeko.
- Itzultzaile bat kontratatuz, beharrezkoa bait da.
- Lantegiko langileen seme-alabei euskara ikasteko laguntzak emanez, bekekin egiten duen bezala.
- ...

Aipatutako proposamen hauek aurtengo Hitzarmenean sartzea erabaki da, Enpresarekin negoziatzeko.

Eta besterik gabe, euskara eta euskal kulturaren aurrerapenaren alde bazaude, dei berezi bat egin nahi dizugu sortu berria den talde honetan zure lana eta aportazioak egiteko :

LANTEGIKO EUSKARAREN ALDEKO TALDEA.

ETXALAR

ZAHAR ETXEA

Zaharrak ugaritzen ari dira. Bizia luzatzen doa, jendea urte gehiagoz bizi da, eta adin haundikoak, ondorioz, gehiago dira. Eta gehiago izanez, zerbitzu ugariago behar, eta zerbitzu egokiagoak Zaharren lehengo bizitza planteiamendua, arina eta eskasa bilakatu da gaur: Etxean, familian bizi, eta hori ez izanik, asilora. Eta horrek berekin daramana: herria utzi, bere bizilekutik urrundu, ezezagunen artean sartu, etab.

Halabeharrez bada, hala beharko. Eta horrela ez denean? Hau da: jende bat ezindua gelditzen denean, asilo edo ospitalea bere bizilekua izatea nahitaezkoa da, etxean aski laguntza biderik ez badauka. Baina zergatik kanpoko asilo batetara joan, bere buruaren jabe dena, jan eta atseden lekurik ez duelako edota etxeko bakardadeak menperatzen duela-

ko? Horrelakoentzat soluziobidea herrian bertan ez dirudi hain zaila. Eta soluziobide horixe izaten ahal da "ZAHAR ETXEA".

Lehen herriko ospitalea izandako etxean, jan eta lo egiteko bidea izanen dute, kanpora joan gabe, etxe gabe edota bakarrik aurkitzen diren zaharrak; hori da Udalaren proiektua. Zaharrak, edo gazte izanak behinipehin, eta norbaiten laguntzaren beharra sumatzen dutenak. Txalogarria egitan iniziatiba hori. Arrunt ezindua eta bakarrik gelditzen denarentzat, Lesaka edo Berako asiloan lekua segurtatu ere egingo da.

IGANTZI

KORRIKA 6

Aurten Korrika eskualde honetatik igaro zaigu eta pasatu den bezala hagitz ongi ateri da. Egitan eskergarria izan da jendearen parte hartzea, ze jende aunitzek parte hartu du eta herri guzietan gainera. IHANTZIkoak ere, zintzo zintzo agertu ziren erran zen ordurako uste genuen baino jende gehiago gainera.

Zerbait erran nahi du horrek, euskalzaleak ugaritzen goazela.

GOIZUETA

Aurreko TTIPI TTAPAn kezkaturik azaltzen baginen ere, Eskolako akatsak zirela eta. Egun egoera badirudi, zerbait aldatu dela. Nafar Gobernuak gastuen kargu egin nahi ez bazuen ere. Hezkuntza Ministaritzak hamabi miloi agindu ditu birmoldaketarako. Diru honi, lau miloi kendu behar zaizkio proiektuarentzat, BEZ, eta Enpresaren honorarioentzat.

Gelditzen den diru horrekin, gastu guztiak ez estali arren; Hezkuntz Ministaritzak, falta dena konpondu edo moldatzeko borondatea ere azaldu omen du.

BERTSO PAPER LEHIAKETA

Goizuetan sortu berria den Euskara Batzorde Herritarrak, bertso paper lehiaketa bat antolatu du; bertso hauek martxoaren 18rako idatziak egon behar dutelarik. Partehartzaileak, herritarrak izan behar dute. Hiru mailatan sailkaturik dago lana. Lehenengoa, eskola maila. Bigarrena 14-18 urte aurten betetzen dituztenak eta azkenik 19 urtetik gorakoak. Bertso kopurua 4,6,8,da, gaia librean.

Euskara Batzorde honen helburua honako hau da:

Euskararekiko errealitateari dagokion kontzientzia sortu.

- Jendeari euskararen egoera azaldu.
- Herria kontzientziatu.

ARAU SUBSIDIARIOAK

Martxoaren 9ko batzarre arruntan Udalak N.N.S.S.en aprobazio iniziala egin zuen aho batez.

Hilabete batez, erakusketa publikoa izango da. Denbora honetan lan hau egin duten Arkitektoak eta Aparejadorea etorriko dira edonork dauzkan zalantzak edo kezkak argitzera eta komentatzera. Ondoren aprobazio probisionala eginen da, azken pausoa definitiboa izango delarik.

HERRI BATASUNAREN MOZIOA.-

Urtarrilaren 20ko batzarre arruntan Herri Batasunak mozio hau aurkeztu zuen:
Goizuetako Herri Batasuna Udal taldeak, herriko osasun zerbitzuak izan dituzten aldaketak ikusirik eta era bat kezkaturik, hauxe adierazi nahi dizugu:
1. Nafarroako Gobernuak, Osasun zonifikazioaren Legea aprobatu zuela eta orain Leitzeko Zona Basikoan aplikatu duela Goizueta barrenean dagoelarik.
2. Lege horretan azaltzen denez, Goizueta baldintza bereziko herri bat da baina errealitatea ez da berdina, zeren berezitasun horiek ez dira agertzen.

3. Lege hori aplikatzen hasiz geroztik, benetako arazo bat sortu dela Goizuetarron artean, hau da: Arratsaldeko 3etatik goizeko 8etara ez mediku, ez erizain gelditzen garela eta horrek ekar dezakeen ondorioak larriak izan daitezkela, zeren herritarren bizia jokuan jartzen bait du. Beraz, Goizuetako egoera larri hau kontutan harturik, Alkate jaun horri zera eskatzen dizugu:

1. Nafarroako Gobernuari behar den planifikazio bat egitea eskatzeaion, Goizuetako herriak egunaik dituen 24 ordutan mediku bat bertan eduki dezan, eta beste hainbat hobekuntza aplika dezala herritar guztion osasunak benetakoatentzioa izan dezan.

2. Ahal den modurik hoberenean, eta ahalik eta lehenen asanblada bat antola dezagun gaurko Osasun Zentroaren funtzionamendu eta osasunarekin lotuak dauden beste zenbait gaiari buruz informazio zehatz bat eman dezazun herritar guztioi.

Mozio hau aurkeztu eta handik aste batera, Leitzako Osasun Zentroan bildu ziren bertako sendagile eta erizainak Goizuetako partaide batzuekin eta Eskualde honetako Osasun Zerbitzuko arduradunarekin.

Gaia asko eztabaidatu ondoren, hemen 24 orduak sendagile edo erizainekin beteak egotea esijitu zen. Hainbeste insistitu zen, heurek borondatea azaldu zuten, baina oso argi utziz, legalki ez dutela hutsune hori bete beharrik.

Legeak, langile hauen eskubideak ditu, eta ez, legeak markatzen duen ordutatik kanpo gaixotzen denari zerbait gertatuz gero.

ARGI DAUKAGU!

ZUGARRAMURDI

JATETXEETAN

Herriko hiru jatetxeetan Sanitateko inspekzionearen ondotik obrak egin beharrean daude .

Gaur egun afera hau gogor eramaten da eta orain edo gero ez da nehor libratzen. Bainan baharrezkoa den gauza da, hori bai.

Duela urte pare bat edo hola, harategietan ibili ziren halakotan: zurezko mahaiak alumniozkoak behar zituztela, grifoak bertze gisakoak (besoekin edekitzeko modukoak, eskuxukatzeko haize aparailu... Eta orain, erraiten dugun bezala, jatetxeei tokatu zaie.

Altzatenean Martxoaren erdirakoz ia bukatuak zituzten lanak (ate bat edeki, azulejatu, eta gutxi gehiago). Herrikoetxean eta Erro-taxarrekobordan oraindik ez dire hasiak bainan uda ailegatu baino lehen egiteko asmoarekin daude.

Palazioan berriz, ez da Sanitateko aferaren gatik bainan, obrak egiten hasiak dire ere. Hemen paretetako harriak kanpora atera behar omen dituzte.

INAUTERITAN

Otsailaren 5,6 eta 7an inauteriak ospatu ditugu. Herri ttiki gehienetan bezala, Zugarramurdiko inauteriak ez dire eskea, akordiona eta afaria baizik. Batez ere gazteen besta bat da, berek bakarrik direlakoz parte hartzen dutenak (haurrak ahantzi gabe, hauek ere eskean eta bere txistu musikarekin ibiltzen dire eta). Hauetatik aparte bertze herrietarren dako inauteria zerbaite holatsu da:

etxekoandrea sukaldean delarik adituko du zerbaite musika eta irrintzi bezalakoa eta segidoan PandaPanda !! etxeko atean norbaitek jotzen; orduan hartuko ditu lehendik prestatutako ardo eta bixkotxak eta atarirat aterako da (ausarta balin bada ateak zabalduko ditu eta sukalderaino pasaraziko ditu jende multzo guztia), etxeko zakurra saingaka hasiko da, katua zalapartaka gordetuko da eta baharbada amatxi edo aita ere handik edo hemendik hurbilduko dire; solas batzuk, trago batzuk, jota dantzatu, korneta jo, eta aire... heldu den urteraino. Gero arratsean beharbada afalondotik batzuk agertuko dire Herrikoetxerat edo Altzatenerat kafea hartzera, ia zer giro ikusten den edo baita ere vals bat edo dantzatzera.

Hauek dire gehienen inauteriak, bainan gazteek segituko dute mozorrotzen ahal duten bezala, Pedrok eta Xotak prestatuko dituzte kotxe eta kamion eleganteak gorputzak sobera ez sofritzeko, ez du importa 24 orduren buruan kotxe gaixoa oliorik gabe gelditu-eta su hartzea, kamionak ere suerte hobeagorik ez du izanen, palierra hautsi eta hantxe, ez aintzina eta ez gibela gelditu

Berdin da, inauterietan gaude eta inor ez da apuratzen holako-

en gatik. Esan behar dugu ere aurten AnsonekoBordako Joxeangel, gure akordiolaria, arras animatu eta martxosoa harrapatu dugula, organillo berriarekin, bertsoak botatzen eta baita ere dantza berriak erakutsi dizkigu.

EZ DAKIT ZER PASATZEN DEN AZKEN ALDI HUNTAN jendea hasi dela paseatzen gauetan... Kantuak erraten duen bezala, zerbaite omen da. Hala diote beti; eta ez gara sorginkeriari buruz ari, ez, bainan gauez eta ixilka ibiltzeko afera da hau ere.

Normalki ez da nehor enteratzen, bainan lehengo aldian animaleko animazionea sumatu omen zen. Goizeko 5,30ak aldean Bente tako bidetik heldurik, behitiko karrikan agertu omen zen furrindaka kokoen landrover bat, frenazo bat eman eta Joxeri Iriartetik ateratzen ari zelarik, galdetu zioten ia kamion bat pasatzen ikusi zuen edo ez, Joxek, ezetz erantzun zien, ez zuela deusik ikusi.

Bitartean, bilatzen zuten kamion hura, Goiburuko aldean barna txoko batean gordetua zegoen, beste kamionak berriz, Martineko aldean barna berdin gordetuta zegoenak, problema gehiago izan zituen gero handik ateratzerakoan kunetan sartu zitzaiolakoz arruda eta Danda!! irauli egin zen bere aretxe guztiak izituak Muuuu!!! egiten zutelarik. Lasailasai traktore bat ekarrerazi, harekin kamiona zutitu, eta hemen ez da deus gertatu.

Hori bai kokoak konformatu izanen ziren 12 aretxe harrapatu eta, bainan seguraski ez ziren hain konforme gelditu izanen handik egun batzuren buruan hirugarren subastan, 12 aretxe haiek 24.000 pezetetan saldu zirelarik.

GAU PASA

Aurten ere, joan diren bortz urte hauetan bezala antolatzen ari gara ekainaren 24ean akelarre gau-pasa egiteko.

Gauza berririk ez da izanen eta lehendik besta hau ezagutzen duzuenak badakizue zer den: leze barnean jartzen dire bi ostatu, edari, ogitarteko, salda eta kafea zerbitzatzeko; "minxoriak" orkesta kisu-labe gainetik musika jo eta jo arituko da; gaueko momentu batean argi guztiak itzaliko dire eta sorginak suaren inguruan agertuko dire; gero eskalera beheiti, beren antortxekin argituz Iturengo zanpantzarrek sorginak aizkatuko dituzte. Eta holaxe gauak aurrera segituko du bakotxaren gorputzak edo animoak iraun arte.

HERRIKO-ETXEA

Bost urtero herriko-etxea edo "posada", udaletxeak subastan ateratzen du ostatu eta jatetxeko negozioa eremateko.

Martxoan atera zen subastaren abisoa eta haren kondizione ekonomiko bat 1.000 pezeta egunean ordaintzea zen. Kantitate hortatik gora egin behar ziren propuestak.

Eta bi propuesta bakarrik

agertu ziren: bat orain arte herriko-etxea zuenena (Manolo), eta bestea Burlatako batena. Lehenbizian Burlatakoak irabazi zuen kantitate haundiena eskainiz; bainan gero bigarren bueltan Manolok sakela gehiago zabalduz (650.000 pezeta urtean) berriz ere Herriko-etxearekin gelditu zen.

APOSTU BAT

Nondik edo nola atera zen afera nihork ez daki bainan azkenean apostu bat sortu zen: Joxemari Guantxekoa bera, Errotaxarreko-bordatik herriraino lasterka ordu laurden batez ailegatzen zela; Martin S. berriz ezetz zion, ez zuela Joxemari halako bat egiteko kapable ikusten. Eta baietz eta ezetz, azkenean 5.000 pezetetako apostu batean gelditu ziren.

Ez dakigu sobera fido ote ziren ez bat eta ez bestea. Joxemari beti hasi omen zen azkarki lasterka eta gogor entrenatzen gorputza "a punto" ematen. Martinek berriz proba egin omen zuen Beñat bere seme zaharrena lasterka emanez eta bera ondotik denbora komtrolatzen (hala diote).

Ailegatu zen eguna eta Apiril aren azkeneko igandean joan ziren bi protagonistak eta testigo pila' bat Errotaxarreko-bordako aterat, han kronometroa martxan jarri eta 7ak punttupunttuan Joxemari lasterka hasi zen, Martin S. bere kotxean ondotik eta beste bizpahiru kotxe ere prozesionea konpletatzen... eta ?... Zer gertatu ote zen? ...nerbiosten hasi zarete?...

Bon gertatu zena Joxemarik apostua irabazi zuela da: erdi maingu ailegatu zen bainan 14 minutuz herriko plazan sartu zen.



ITUREN

Epa TTIPI-TTAPAren irakurleok, orain irakurriko dituzuen albisteak Iturengoak dira eta azken hilabete hauetan gertatutakoak hain zuzen ere.

AURTIZKO OSTATUKO OBRAK

Orain dela gutxi hasiak badira ere, dagoeneko lan ugari egina da 1ko pisuan, Maitzan jatetxea egitea espero da.

SUBASTA:

Hiru kabi-Ontzaleku alderdietako pinua subastara atera zen, subasta honetan 6 egur-enpresak hartu zuten parte eta esan beharrekoa da lehenengo lotean irteerako preziotik 300.000 pezeta goitu zela eta hau "Papelera Española" enpresak eraman zuela. Bigarrena berriz "Explotaciones Erkizia"k eraman zuen, eta irteerako preziotik 1.000.000 bat goratu zen.

LOSA-ARROBETXAMENDUA:

Beste aldetik esan behar da Kaprio alderdiko harrobian losa ateratzen hasi behar dutela. Dokumentazioa udaletxearen eskutan dago eta Nafarroako Gobernuan tramitatzen ari da kasu hau.

HIRURTEKO PLANA:

Hirurteko planaren barruan Nafarroako gobernuak aurtengo, orain aipatuko ditudan laguntzak eman ditu:

-Aurtizko auzoan, 2.000.000 ur kaptaziorako.

- Lasagarako, 4.000.000 ur kaptaziorako eta,

Mendaurko urtegia.

- Iturenerako, 2.000.000 desaguak hobetzeko.

Hurrengo urterako berriz, hauetxek:

-Hiru auzoen elektrifikazioa 45.000.000

1991. urterako berriz:

- Karriketako argiaren berrikuntza 15.000.000
- Udaletxearen obrendako 15.000.000
- Baserrietarako bideentzat 20.000.000

ARAU SUBSIDIARIOAK:

Maiatzaren 6ean egin zen pleno orokorrean idazlari ekipoa eta Udalaren Gobernu komitea juntatu ziren eta arau subsidiarioak garatzen hastea erabaki zuten.

AURTIZKO DEPOSITUAREN GARBIKETA

Nafarroako Gobernuak Aurtizko ura zikina zegoela notifikatu zion udalari, eta honen ondorioz



Iturengo eliza.

Apirilaren 23an Aurtizko deposituan auzolana egin zen.

EUSKAL TELEBISTA-2:

Apirilaren 8an, Iturengo udalak, Iturenen ETB-2 jartzeko erabakia hartu zuen inguruko beste herriekin batera.

TRINTATE EGUNA:

Maiatzaren 21ean Trintate eguna ospatuko da.

Aurten berrikuntzaren 26. urteurrena da eta jende ugari espero da.

Ekintza hauek izanen dira:

- larunbatean akanpada
- Igandean Mendaurrera ibilaldia, meza eta arratsaldean Musika, "ARITZA" taldearekin.

Iturendarrak Mendaur egunean.

KORRIKA TTIKI:

Iturenen Korrika ttikia egin zen eta bertan, Zubietako haurrek ere parte hartu zuten. Ondoren Herriko Ostatuan txokolatada eta antzerkia izan zuten.

AEK IKASTAROAK:

Iturenen uztaila eta abuztuan AEK-k ikastaro batzuk emanen ditu. Ikastaro hauek, trinkoak edo intentsiboak izanen dira. Bi izanen dira eta bakoitzak 30 pertsona bilduko ditu. Ikasleek goizez klasea emanen dute eta arratsaldez 6etatik antzinera nekazariekin praktikatzen ihardunen dute.

ZUBIETA

Aurreko txandan bertso batzuk izan ziren, eta oraingo honetan ere agertuko dira, besteak bezain txarrak.

Herriak betiko martxan jarraitzen du, eguneroko gauzetan. Gezurra badirudi ere, Euskal Telebista ikusten da, tarteka! Urarena bukatzeko punttu punttuan dago, apirila edo maiatzarekin batera... Depuradora ere egin digute. Kristorena! Bi piszina hainekoa . Orain, dirua lortzeko modua pentsatu behar izanen da, aspaldiko kezka bait da. Turismoa poliki poliki sartzen ari bait da, eta ez dakigu nora eramanen gaituen.

Ayuntamentuaren ekintzek sortzen dituzten gorabeherak ere aipagarriak dira. Bertan aritzen dena epaile txarra baldin bada ere, eta hori da nire kasua; hoberena besteren batek toki hau hartzea izanen litzatekeela uste dut. Beraz, bakarren bat animatzen bada, postua berea dela jakin dezala. Hor doa bada eskaintza. Idaztea bada problema lagunduko diot ahal dudan neurrian.

Eta bestela, egunerokoak ez diren nobedade, fenomeno eta gertaera bitxirik ez da gertatu, zurrumurruen arlokoa ez dena, alegia.

Joan den aldian hasitako bertsoei jarraipena eman diezaiogun

orain:

Iritsi ziren, aspaldi xamar,
espero ziren isunak
izen horrekin deitzen dituzte
ezautzen diraden multak
Etxekenekuk hartu omen zuten
itsusi eta handiena
berrogeitamar mila durutan
bihotzaren pozgarria!
lanari berriz lotu beharko
ohizko duten bezala.
Tikiagoak izan omen ziren,
beste hiruek hartukoak
lau sosa edo,...antzekoa baita!
hamar milakoa, durotan.

Jesus, Mari eta Joxepantoni!
norantz abiatu gara?
Hau ote dugu pake giroa?
herriko ezaugarria !
Solastu aisa egiten da
ejkintzetan arazoa,
ekin ta ekin, beti saiatu
Badugu zer kontatua:
azken aldiotan, sobera lana,
onik behinere ezin topa!
Parte naizenez, gaizki legoke,
baina, ze arraio! bota beharra,
borondate osoa dut ona.

Sartu banintzen, sartu nitzaden,
esaten zidan lagun hark:
kaso eman zak, gizon tontua,
ez hartu horrelako lana!

Neronek ere ez dut jakinen
zertaz izan nintzen sorra
sartu ginaden udaletxean
atetze eguna, non da?
ez naiz damutzen,
ezta nahi ere nahi
mutur beltzak, inguruan.

Ezagun bat, emakumeak,
ondarrian, lagun zena
benetan ez nuela nik espero
hain itxurazko arrakasta

Behin ta betiko, nire babestzat!
inoren kaltea ez dut nahi!
bainan itxuraz ez dugu lortzen
guztien adostasuna.


TAKK!
WWWW

Sutu egin dira batzuek eta
hemen da, neretzat, koxka!
bizitzen dute egindakoa
bere aurka egina bezala
inolaz ere ez dute onartzen
ikuspegi jenerala.

Ondo edo gaizki egin duguna
ez zen GURETZAT premia
baizik denentzat egina dena,
batena ez izaitia.

Hortxe dirade tribunalak
hara eraman auzia,
ukatzen dela gure iritzia?
zurea da arrazoia!

Egia bada gaizki egina dela
lortuko duzu agertzea,
udaletxeak jarriko dizu
zuk nahi duzun harri haina.
Hori al duzu neri ukatzeko
eguneroko agurra?

Tira, tira. Bazter dezagun pena eta espero dezagun ,poza eta... eguraldi ona, besterik ez bada alaitasuna ere.
Joan dira, berriz ere, menditar batzuek, berehalaxe hemen dira. Besta presta dezagun, gibela zain dezagun! Gibela eta poltsikoa, orain dela gutxi gertatutakoa berriro ere gerta ez dadin. Beno, ez hain gutti, inoteen ondarreko egunak bait ziren. Harat eta honat, gaua ezin amaitu genbiltzala, nora joaterik ezin topa... Tafallara? Tira, besterik ez bada! joaldunak ere joan behar zuten... han elkartzeko asmotan, hiru lagun abiatu ziren goizeko seiak aldera. Etortzea izan zen zailena, erreskatea izan bait zen gutxienezko baldintza. Iragana joan da eta, gatoz gaurko egunera.
Noiz behinka bakarrik, baina, tarteka berri txarrak ere eman behar dira, gure gogoaren aurka. Ezaguna dugu sua, batzutan lagun eta besteetan etsai... . Kontrola ezina suertatzen denean... zein deabrua!

Otsondoko borda batean ari zirela, suak hartu zuen inguru guztia, erraustu arte. Juanmari, Batista eta Joxe Antonio izan ziren azidentatuak. Hauek ez dute deus txarrik hartu, diru kalteak ez badira. Ikaria, kristorena, butano bombonak zerurantz joan bait ziren. Eta dirua beti jaungoiko dugu, baina, nola edo hala moldatu daitekeena. Dirurik behar badute auzolanari ekin dezaiogun, ea arazo horretan ere Udaletxeak ematen duen adibidea.

Noiz etorriko da gure jubilazioaren garaia? Zeren, ni paper tartean ari naizen bitartean, hor dabiltza Zubietako jubilatu gehienek, jo eta ke dantzan.

Eta jubilazioaz ari garenez gero Udalaren aurka direnentzat, bada berri ona; laister Malderrekeko guztiek Donezturen menpe egonen garela diote, hangoak jakinen omen du gure tratu ergelak konpontzen!

LEITZA

LEITZEKO XI. KULTUR ASTEA

Hau idazten ari garela, denbora zein azkar pasatzen den, ohartzen ari gara. Aurtengoa, XI. kultur Aste dagoeneko. Hamaikagarren aldia, saioa, edizioa,.. Hau dun/duk marka, hau!! Haserako urteak pasata eta honen martxaz gehiago jabetu ginen garaian, X. Astera iristea jarri genuen muga, helmuga hobe. Hona ailegatu eta aurrera jarraitzen dugu oraindik ere.

Aspaldi hartan Ikastolak hartu zuen antolaketaren ardura eta orduan finkatu ziren helburuek bizirik diraute. Haiek, bitan banatuko ditugu. Herriari kultur mailako zenbait ekitaldi eskeintzea, zortzi, bederatzi egunetako "aste" batetan kokatuz litzateke alde batetik eta bestetik lan hau burutzeko herriko talde gehienek elkarrekin lan eginez ardura har dezaten. Maila ezberdinetan izanik ere talde askok mantetzen dute horrelako programaketa. Luze xamar gertatuko litzateke dendenak aipatzea, bainan honek berak askoren artean eta denentzat antolaturik dagoela esan dezakegu.

"Ekintza asko eta aldakorrak direnez, pertsonalki jende dexente eta hainbat talde edo erakunde dira parte hartzen dutenak. Jende asko pasa da eta jende asko dago. Paper eta ordu asko bete dira eta asko dira betetzear daudenak. Erresponsabilitate handiak hartuz segitzen dugu. Dena dela pena merezi duela badakigu, emaitza baikorra ageri zaigulako.

Dena den horrelakoetan, diru gaia nahi gabe ere, berehala azaltzen zaigu. Diputaziokoa den "Principe de Viana" delakoak, zenbait ekintza babesten du. Hortaz aparte asko da presupuesto guzia betetzeko falta dena. Eta hemen aipagarri herriko tabernek, Aurrezki kutxek, Eskolak, Ikastolak, zenbait elkartek,... ematen dutena. Hala ere falta dena, sarrera kobratuz betetzen saiatzen gera.

Eskemari buruz, azkeneko urte hauetan, aldatzea, berritzea,... proposatu arren, berdintsua mantendu dela esan beharra dago. Egokiena ote da?.. Hortxe dago eta aurrera berarekin....



Egitaraua aztertzen badugu, alde batetik aste bukaerak ikusi beharko genituzke. Bietako batean Iparralde Eguna ospatzen da. Aurten VIII.a egiten delarik. Politikoki ditugun mugak haustea eta kultur ezaugarriak giro alai eta jator batetan bat egitea izan da, betidanik, helburua. Ekintza ezberdinez horniturik (rugbi partidoa, bertsolariak, kantaldiak, dantzariak,...) bazkari handi eta eder batez amaitzen dugu. Urtetik urtera beste ekintzak bezala, "aberasgarriagoa" aurkitzen dugu hau ere. Aurten Baiona ondoko den Hiriburuko elkartearekin bigarren adiskidetasun urtea ospatuko dugu.

Beste igandeari dagokionez, Eskulangintzaren Erakusketa izaten ohi da. Hasera batetan, gehienak kanpotarrak baziren ere, ahal den herritan gehienek parte hartzea dugu helburu. Hau lortzen ari gara, Leitzeko artesauak geroéta gehiago izatea. Iaz hamabost gauza ezberdinak eskeini zizkiguten. Aurten ziur gaude gehiago izanen direla. Esperientzi honek, Herri batek zer nolako posibilitate eskeini lezakeen erakutsi digu garbi. Hemen aipatu gabe ezin utzi, parte hartzen duten askoren gogoa eta saiakera. Urtetik urtera gauza berriak prestatzen saiatzen dira beste batzuk ere. Txalogarria benetan.

Aste barruko ekintzetan sartuz, egun bakoitzak bere ezaugarria baduela esan beharra dago. Astelehenean, ingurugiroari, Naturari eskeintzen saiatzen gara. Astearte eta ostegunetan eguneko gaiak ikuttu nahi ditugu. Honetarako mahai ingurua edo hitzaldi bat antolatzen da. Asteazkenetan filma saioa, zinea edukiz pena da hain gutxi erabiltzea eta hementxe dago aukera txikia. Ostiralean, entzuteko musika hain zuzen ere. Ez dezagun pentsa pertsona helduei bakarrik zuzenduta dagoela, horregatik umeei oso zati berezia eskeini nahi diegu eta horretan ahalegintzen gara. Astez filma saio bat eta larunbatetan joku eta antzerki emanaldiak.

Astearen zehar liburu eta disken erakusketa eratzen da. Honek beste arloetan bezala urtearen zehar bertan izateko posibilitate bat ere hurbiltzen digu.

"Kultur Astea" urtearen zehar zabaltzea izan da beti horrelako momentuetan dugun helburua. Hau gauzatzeko denok jakin badakigu, gogoa, jendea eta diru laguntza behar izaten dela. Orain arte honetaz gutxi egin bada ere, asmoak ez zaizkigu falta. Beraz zergaitik ez?

Hau idatzi dugun momentuan aurtengo egitaraua zehazterik ez dugu izan bainan,Ekainaren 3an hasita hilaren 11 bitartean ospatuko den astearen berriak bidaliko dizkizuegu. Anima zaitezte bertan parte hartuz!!!!

LEITZEKO KULTUR TALDEA

SARA

1989ko ekainaren 25ean, lehen aldikotz, AXURIA Sarako mendizale elkarteak, "SARAKO ITZULIA" izeneko ibilaldia antolatu du bertze 5 elkarteren laguntzarekin: kirol mailan; SARAKO IZARRA Rugbi; SARAKO IZARRA Pilota; SARAKO INDARRA. Kultur mailan; ZAZPIAK BAT dantza eta OLAIN.

Hunen ondoren AXURIAK zabaldu gutuna agertzen dautzuegu:

"40 bat kilometroko ibilaldia da Sararen inguruan. Ez dugu nahi izan neholako konpetizione zentzurik izaitea ibilaldi honek, eta hortakotz behititu ezin den denbora minimoa eman dugu, ahal den jende guztiak parte hartzeko gisan. Halere bidea aski luzea izanik, ibiltariek behar lukete ongisko zailduak izan dadien, gehienezko denbora ere finkatu dugu. Beraz: GUTIENEZ 9 OREN ETA GEHIENEZ 11 OREN ET'ERDI.

Izen emaiteak beharrezkoak dira, eta afixetan eta paperetan ezarritako tokietan egin behar dira, berantenez, ASTEARTEZ EKAINAREN 20rako. Egun hortatik aintzina, Saran berean egiten ahal dira LARUNBATA arte (24.06).

Ibiltari bakoitzak ABIATZEKO TENOREA MARKATUA IZANEN DU KONTROL-TXARTELEAN; txartela izen emaiterakoan emana izanen zaio. Abiatzeko tenorea errespetatu behar da.

Abiatzeak, bakarka ala multxoka izanen dira, 6 eta 8ak artean SANTINAZIO LEPOTIK (Sara eta Azkainen artean). Abiatzerakoan eta kontrol-gunetan txartelak behar dira baliatu.

KONTROL-GUNETAN ura, sukrea, etabar izanen da... Gurutze Gorriak segurtatuko ditu araberazko laguntzak, eta ibilaldia utzi gogo dutenentzat ere beribilak izanen dira. Kontrol-gunetara ibiltarien lagunak etortzen ahal dira. Hortakotz toki horiek markatuak izanen dira.

Norberak bere jatekoak eta eremanen ditu. Bainan ibiltarien lagunek ekartzen ahal di jatekoak kontrol-gunetara. Bertzalde kontrol-guneak benta eta salte-

gi batzuek ondoan aurkituko dira eta bertan erosteko erreztasuna izanen dute ibiltariek, puskak gainean ereman beharrez.

Arribadak arratsaldeko 3etatik 7 t'erdietaraino izanen dira. Santinazion. Ibilaldia burutu duen ibiltari bakoitzak (ahalaz eman denboratan barne) agiri bat, SARAKO ITZULIAren oroitarri, eskuratuko du.

Arratsean, 8etatik landa Sarako Plazan ERROMERIA izanen da eta urririk den zozketa bat. IBILTARIEN KONTROL-TXARTELAREN ZENBAKIA ZOZKETARAKO BALIAGARRIA DA. EZ BERAZ TXARTELA GAL ZOZKETAKO SARIAK BILTZERIK NAHI BADA.

Horra, IBILTARI ADISKIDEAK, zer dugun antolatu zuentzat. Etor zaitezte multzo handian egun horren gurekin pasatzerat. Egun hori izan dadiela ederra ibilaldia ongi egin eta Sarako inguruetako bixta paregabeak goza ditzagun".

Orain aipatuko dugu nundik nora den ibilaldi hori.

"Lehenbiziko orenean Santinaziotik (169m) Atekeleunerat (723m) iganen gara. Hortarako trenbidearen ondoko xendra hartuko dugu. Atekaleunetik Mahain Harrira (Lizuniagako lepoaren azpian) (158m). Hemendik iganen gara 40. mugarriraino (605m) Ibanteliren gibelean, gero Lizarrietako lepora (441m) lehen kontrol-gunera heltzeko. Gainez gain bide zabal harriztatu zein belartsu batez Munoenborda (489) (kartan Aynatarbe), Sarako azken etxeraino, Atxuriaren bertzaldean.

Hemendik Sarako Lezera jautsiko gara. Harriztatu bide batek Berrouet bentaraino eremanen gaitu. Bigarren KONTROL-GUNEA. Bentatik bentara Cherchebruit (32m) deitu tokiraino, Hirugarren KONTROL-GUNEA. Gaztelurat igan (237m) (Redoute Luis XIV kartan), Legurekoborda (211m) eta azken zatia itzuliaren burutzeko. Horrela egin dugu Sarako Itzulia".

Ekainaren 20 arte, zure izena ematen ahal duzue helbide huntara.

Herriko etxeko edantegirat SARAN. (Mitxel); tel: 59.54.25.19. (arratsaldez).

Ttipi-Ttapa Aldizkaria
Alondiga Beheko Plaza
31770 LESAKA

HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!

IZEN DEITURAK _____
HELBIDEA _____
TELEFONOA _____
HERRIA _____
PROBINTZIA _____
BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____
SUKURTSALA _____
ZENBAKIA _____

SINADURA

URTERAKO HARPIDETZA 1.000 PZTA.

GU TTIPI-TTAPA ETA ZU?

Gure hizketak aunitzetan beharrezkoak izaten ditugu hiztegian aurkitzen ez diren nolazbaiteko espresione edo hitz batzuk.

Hauek gehienetan soinu edo hots zenbaitzuk adierazten dituzte eta gure ahotik ateratzen dire ohartu gabe, nihorrek erakutsi gabe, eta gainera denek ulertzen ditugun moduan, nahiz eta batzuetan beharbada inoiz ez adituak ere. Eta preziski, hain aise erabiltzen ditugulakoz, seguraski ez gara ohartu izanen zer multzu haundia diren hitz hauek.

Hementxe dituzue horietatik batzuk, baina dudarik gabe, zuek jakinen dituzue beste hainbeste gehiago, hauetatik aparte, aunitzetan leku bakoitzak badituztelakoz beren propioak.

* DINBITI-DANDA : zerbaite gogor jotzen ari garenean.
* ZINPITI-ZANPA (ZINPI-ZANPA) : berdintsu, zerbaite finki jotzen edo harrotzen .
* KISKITIKASKA (KISKI-KASKA) : kutxarez mahaia edo bertze edozein ontzi joka.
* KINKITI-KANKA (KINKI-KANKA) : nonbait ate joka eta ezin edeki ibiltzen garenean denbora luzez.
* KAXKA-KAXKA : hau berriz, atea modoxoak bezala jotzen.
* KRISKITI-KRASKA (KRISKI-KRASKA) sua pizteko ezpalak hausten ari garelarik.
* BINBILI-BANBALA (BINBI-BANBA): eskailburutik behera zerbaite erortzen denean.
* ZIRTI-ZARTA : bi begarriondoko ematean (eta gainera gero errekreorik gabe gelditzea...)

* TTIPI-TTAPA, TTAPA-TTAPA,TAKA-TAKA,TTAKA-TTAKA: denak berdintsuak: pauso ttikian ari garenean.

* KILIKI-KALAKA : kotxe zaharretan ateak sobera finki ez direnean.
* TIRRIKI-TARRAKA : zerbaite zakarki, torpe, eta motel egitea.
* FIRIRIN-FIRIRIN : finki, aise eta ongi josten ari garenean.
* TRIPUS-TRAPUS : zakarki eta nolanahika zerbaite egitea.
* ZIRRIZTI-ZARRAZTA : isatsa edo erratzarekin etxeko atea garbitzen.
* RIKITI-RAKA (RIKI-RAKA) : lanak berehala bukatu nahi ditugunean, nahiz eta emaitza ez beti ona izan.
* PLISTI-PLASTA : umeak putzuan gustura jostetan ari direnean.

* ZIPI-ZAPA : hau ere, ttikiak gineralik ipurdian seguraski ematen zizkiguten maiz.
* ZIZTITI-ZAZTA (ZIZTI-ZAZTA) : orratzarekin xixtatzean, edo baita ere mendian elorriak ezin moztu ibilki garenean.
* ZIKITI-ZAKA (ZIKI-ZAKA) : zangoak logitan edo eskuak oretan ditugu.
* DRANKA-DRANKA : ur tragoa gustura edaten ari gara.
* TRAKATAN-TRAKATAN : zaldiak, mandoak, edo astoak trostan dabiltzanean.
* TIPITI-TAPA (TIPI-TAPA) : ibiltzen dire batzuk haserre bizian muturjoka ezker eta eskuin.
* BOR-BOR, PIL-PIL : ura edo antzeko ixurkinaren baten irakina.

ENDARA

BAGARA EDO EZ GARA?

Orain dela 17 urte Endara errekara egin nuen ibilbide batean erreka hartan zer zegoen eta inguru berezi bat zela adierazi zidaten.

Ttikitatik ezagutzen dut Erroiarri mendia eta honen ondotik pasatzen den Endara erreka, eta beti oso toki berezia iruditu zait; han gorosti aunitz zeuden eta nik ezagutzen nituen beste toki aunitzetan ez zeuden. Haurtzaroan pikor gorria duten zuhaitz horiek oso politak iruditzen zitzaizkidalako edo, gorostiak ateratzen ziren inguru hori beti gustatu izan zait eta toki berezitzat neukan. Beharbada nere aitaren atzetik korrika ibili behar nuelako, aita oilagorren baten atzetik zihoanean, oilagorraren ehiza nere aitarentzat zerbait berezia zelako nik berezitasun hori leku horrekin lotu nuen.

Baina lehen esan dudan bezala beranduago ezagutu nuen beste modu batetara. Igande hartan ez nintzen Aralar edo Aizkorrira joan, Irunen gelditu nintzen eta lagun batekin joan nintzen Endarara. Honek behin galdetu zidan:

-Aizu, Endara ezagutzen al duzu?

-Bai, noski.

-Badakizu han gurbitzak (madroñoak) daudela?

-Hori Madriden ez da hala? Hemen badago horrelakorik?

-Bai, toki bereziak behar dituzte, baina badaude.

Horrela beste ikuspegi batetik ezagutzera joan nintzen Endarara. Erroiarrira iritsi eta gorostiak dauden tokitik hasi ginen jeisten Endarara, nere lagunak landare zuhaitz eta animalien azalpenak ematen zizkidan bitartean.

Geroztik aunitzetan joan izan naiz, batez ere udazkenean eta udan. Udazkenean gorostiak eta gurbitzak beren fruitu gorri hori ateratzen zutelako eta bertan dauden goroldioak ongi ikusi ahal izateko. Udan Endara erreka goitik hartu eta Endarlazaraino barrendik jeisteko. Hori bai, ongi ikasi nuen harat ezin nuela edozein lagun eraman, bertzela dagoeneko jende aunitzek ezagutuko zuten eta.

Inguru hau jendeak ez zuelako ezagutzen (ehiztari batzuk, ondoko baserrietakoek eta mendizale batzuk salbu) alde batetik, eta bestetik biderik ez dagoelako eta han ibiltzea abentura bihurtzen delako, toki hau garbi eta degradatu gabe mantendu da.

Martxoan, auzoko eta lagun dudanaren eskutitza irakurri nuen egunkarietan. Endara errekara harri pila bota dutela zioen. Garai batean oso polita izandako Irungo auzo batean hazi ginelako eta gure auzo hori pixkanaka degradatzen ikusi dugulako, autopista zela, ur depositua eta hodiak zirela, orain gas naturalen hodiak, kezka berezi bat sortu digu auzo inguruko mendiak dauden bezala kontserbatzeak.

San Antoneko urtegiaren proiektua onartu zenetik, jakin genuen berriro ere hodiak gure auzotik pasatuko zirela eta aspaldi ukitu gabeko menditik pasatuko zituztela. Aspaldi diot zeren lehendik Domiko urtegitik etortzen den ura kanale batetik joaten da Irunera. Garai hartan, honelako obrak egiteko medio guttiago zituzten eta ez zuten mendia ia hondatu. Gaur egun aldiz eskabadora haundi horiek erabiltzen dituzte pistak idekitzeko eta hodiak eta beste gainontzeko materiala kamioiz eramaten dute; ez lehen bezala, mandoz.



Honelako paja bota ondoren Lesakako jendeari Endaratik bueltatxo bat ematea eskatuko nioke, nahiz eta Endara beste aldean jaioa izan Bortzirietako Herri batean bizi naiz eta nik inguru hau maitatzen dudan bezala denak maitatzea nahi nuke. Endara errekak muga egiten du Irun eta Lesaka artean; muga guzien gainetik defenda dezagun Endara, bere amurriak, izokiak, landareak eta bertze gainontzeko animaliak.

GURBITZA

NEKAZALTURISMOA

BASERRIAREN OSAGARRIA

Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak, Nekazaritzaz eta Arrantzuaz aldizkari bat argitaratzen dute, Sustrai izenekoa. Honetan, Bruselas-etik Francisco Miramon, EHNEKOko ordezkariak nekazalturismoaz artikulu interesgarri bat idatzi du. Hortik ateratako informazioaz osatzen da artikulu hau.

Azken bolara honetan Nafarroako Gobernuak Baztan-Bidasoa turismo inguru gisa bultzatu nahi du, eta aunitzetan zer izanen ote den hori pentsatu dugu seguraski.

Europako Ekonomi Elkarteak, mendialdeko nekazarien diru iturriak haunditzeko bultzatzen duen formula berria da Nekazalturismoa

edo baserri-turismoa.

E.E.E.ko 797/85 arautegiak nekazal esplotazioetan turismorako inbertsioen laguntzak kontutan hartzen ditu. Filosofi hau orain da gutti Eusko Jaurlaritzak zabaldu duen dekretoan hartzen da: nekazaritzak, turismoak eta eskulangintzak batera lagunduko lukete baserriko bizitzaren kalitatea hobetzea.

Dekretoak baserri-turismorako egoitzak edo eta nekazaritzara dedikatuak dauden baserrietan akanpalekuak egiteko laguntza sistema bat kontutan hartzen du. Subentzio horien kopurua etxean egin beharreko obraren %40a bitarterainokoa da. Halere subentzioa inoiz ez da 5.000.000 pezetatatik pasatuko bizitzetan baldin bada eta kanpiñen kasuan miloi batetik.

Herri ttikietako turismoa eta nekazalturismoa

Herri ttikietako turismoa eta nekazalturismoa aunitzetan nahastu egiten dira. Europako Komunitateen batzordearentzat, herri ttikietako turismoa ez da baserrietan egiten den turismoa edo nekazalturismoa bakarrik, herri ttikietan egiten den beste edozein turismo aktibitate baizik. Nekazalturismo hitza baserritarrak eskeintzen duen lo [illegible]iteko gela edo pentsiorako soi[illegible] erabiltzen da.

Nekazalturismoak, arrakasta edukitzekotan, herri ttikietako turismoak ez bezalako zerbait eskeini behar du; beraz, baserrietako turismo honek inguruarekin eta familiarekin zer ikusia duen zerbait eman beharko luke, hots, harreman pertsonalagoa, bertako bizimoduari dagozkion ezagupenak, ohizko turismoaren irudia hautsiko duen zerbait.

Behin kontzeptua garbi edukita

erran behar da herri ttikietako turismoak ez duela nekazalturismoa ukatzen, alderantziz, batak bestea gabe ezin du bizi. "Nekazal munduaren etorkizuna" izeneko Europako Elkartearen txostenean honela dio: "nekazal munduan turismoa sartzeko egin diren saiakeretan, turismo honen arrakasta oso loturik dago herri, baserri edo inguruko infraestrukturarekin (piszinak, golf zelaiak, tenis pistak) edo zerbitzurekin (zaldi iblbideak, jatetxeak, aholkatutako ikustaldiak)".

Inguru ruraletan turismoak daukan garrantziaz

E.E.E.ko estatistikek diotenez Europako turisten % 25ak inguru rurala aukeratzen du bere oporrak igarotzeko. Honek adierazten du partaide diren Estatuen interesa turismo mota hau bultzatzeko. Eskari honi erantzuteko infraestruktura eta zerbitzuak beharko lirateke eta bidenabar inguru rurala mantentzeko mesegarria litzateke. Honelako turismoak rentabilizatuko luke, hau da, gorde eta berreraikiko luke etxeetako patrimonioa (historikoa, arkitektonikoa, kulturala) gaur egun hondatzeko edo galtzeko arriskuan dagoena. Interesa bertze aldetik Naturarekin kontaktuan egoteko dagoen eskari honi erantzutea da, inguruko errekurtso arkitektoniko, folkloriko, kultural eta elikadurarekikoekin batera. Honi erantsi behar zaio, honelako plan baten sorrerak lanpostu alternatiboak edo osagarriak ekar ditzakeela.

Nekazal elkarteen papera

Europako nekazal elkarteek ongi ulertu dute nekazalturismoaren garrantzia eta garai batetan itsas turismoarekin gertatu zen bezala gerta ez dadin lanean hasi dira turismo mota hau kontrolatzen. Nekazarientzat ona eta ez kaltegarria, natur ingurua gordetzea eta etekinak benetan baserrian gelditzea ahalbideratuko duen turismoa izan behar du.

Hau dena Euskal Herrian aplikatzea zaila izanen da, kontutan harturik gure izaera, baina kanpotik soldatarik jasotzen ez dutenentzat baliagarria izan daiteke.

BIERREKA

DONEZTEBEN

KULTUR ASTEA NOIZ?

Aurtengo Maiatzari egun gutti falta zaizkio eta oraindik ez dugu deus entzun aste kulturalari buruz. Akitu ote dira betikoz lau urtez egin diren Doneztebeko aste kulturalak?

Egia erran ez ziren gauza haundia, baina aste horrek halako nortasun kultural ttiki bat ematen zion herriari, haurren antzerkia zela eta, helduentzat ere, dantzak, hitzalditxoren bat ere tartean,...

Non dago aurten garai bateko EZPELURA taldea? Zer gertatu zaio? Ez al dago herri honetan bertze kultur asterik antolatzeko inor? Edo... herriko bestak eta inauteak aski al dira?

Baina, Doneztebeko udaletxean ez al dago Kultura Sailarik bere zinegotzi eta guzi? Zer egiten du? Ah, bai, pelikula ederrak ekarri, kalitate onekoak. Liburu bat nahi duzula? Joan-joan zaitez Doneztebeko Kultur-Etxera, hor "Servicio de Préstamo Permanente" bait dago,... ai baina zertan ari ote nintzen, oraindik ez dago martxan eta, "usos múltiples" dela eta multiple horietan omen dabiltza,... hainbertze uso multiple, eta ikusten dugu ni multilpe ni ná,...

Bertze herrietan ba omen da Kultura Koordinatzaile bat, soldataren erdia, noski! udaletxearen sakeletik, bertze erdia bertze bideetatik. Baina zer egiten du tipo horrek? Herriko talde eta kultur ekintzak koordinatu eta bultzatu. Ez al daki Doneztebek horrelako norbaithartzen, hutsune ttiki batzuk bete ahal izateko? Liburutegiko martxa, haurrentzako ekintzak, (batez ere udan),... Ziur egon inork eskatu gabe ez dela bera bakarrik etorriko!

Beno, eta gazteek zer? Zer pentsatzen dute? Nahikoa dute Bordatxo zentro kulturala bezala? Non sartzen zara gazte, Bordatxon? Ez dela hori dena, ez dela hori dena!

Hala ere beharrak ekartze omen du mugimendua eta hemen as paldian gauzak geldi xamar dau de. Hasi mugitzen, berandu iza baino lehenago. Herri honek due kultur aberastasun pittin hor deustan geratuko bait da.

Bertze aldetik animo, seg aurrera bide honetan hasiak di renak , hara non, abeslari tald gazteak, eta bertze zenbai ixil-ixilean dabilena.

Herritar bat

BORTZIRIETAKO ZABORTEGIA

Bortzirietako zabortegien arazoa egunkarietan plazaratu zenetik, gai honetaz txosten eta artikulu aunitz irakurri ondoren gauza bat dago garbi: inork ez daki zehatz-mehatz zer egiten ahal den zaborrarekin.

Hiru sistema daude gaur egun zaborren tratamendurako:

1.Zabortegi kontrolatuak.

Hau da orain arte erabili den sistemarik zabalduena. Herri guzietan badaude eta honen ondorioak ongi ezagutzen ditugu: lurraren kontaminazioa (batzutan errekena ere bai), usai txarra, arratoiak, intsektoak, keak, inguruko zuhaitzak plastikoz eta paperez beteak egotea (haizeak eramaten bait ditu) eta abar luze bat, tokian tokikoa ikusi beharra.

Sistema honek daukan abantaila sera da, instalazio gutti behar dituela eta lekua aukeratuz gero erraz jartzen ahal dela.

Eta desabantailen artean aipatu toki haundia behar duela, herrietatik urrun, garraioa garestituz, eta birziklatzeko dauden hondakinak ez direla probetxatzen.

2.Erretzea.

Sistema hau errentagarri egiteko hondakin bolumen haundia behar da eta hondakin horien kalitateak ere badu zerikusirik errekin edo konbustible gastuarekin.

Sistema honek dituen abantailak hauek dira: leku gutti behar du eta herrietatik hurbilago jar daiteke.

Desabantailak, berriz, honako hauek: inbertsio haundia eskatzen du instalakuntzan eta eguneroko martxan, geldiune eta aberiak gertatzen dira (kasu hauetan bertze sistema alternatiboa behar da), errekina (konbustiblea) behar du, ez du dena erretzen eta errautsari irtenbidea bilatu behar zaio. Kontaminaziorik egon ez dadin inbertsio haundia egin behar da.

3.Birziklatzea.

Sistema honekin energia aurrezten da eta ingurugiroa babesten da alde batetik, eta bertzetik hondakin bolumena jeitsi egiten da.

Adibide gisa, aurrezten ahal den energia eta ingurugiroari egiten ahal zaion mesedea ikustearren, hona datu batzuk: tonelada bat paper pasta egiteko, 20 urteko 14 zuhaitz behar dira; bi tonelada plastiko egiteko, tonelada bat petrolio gordin; tonelada bat kobre egiteko, 7,5 barrika petrolio, eta tonelada bat beira egiteko tonelada erdi fuel-oil.

Honek bi berreskurapen sistema ditu: bat, berreskurapen zuzena, herritarrok hondakinak bereiztea eta bilketa selektiboa deritzona egitea; eta bigarrena, zeharkako berreskurapena, hondakin guziak bildu ondoren bereiztea. Azken honek hondakinen tratamendua behar du, hau da, klasifikatzea, birrintzea eta baheztatzea.

Sistema honen abantailak: lehengaien probetxamendua, energie ekonomia eta lurrari bere ongarria itzultzea.

Desabantailak: zeharkako berreskurapenerako inbertsio haundia egin behar da hasieran; espezialistak behar dira; energia kosto haundia duenez, lehengaiaren kalitatea ona denean bakarrik konpentsatzen du.

Gai honi buruz debate zabal bat eman beharko litzateke. Agintariek beti bezala sistemarik errentagarriena aukeratuko dute seguraski bertze faktoreak kontutan hartu gabe. Jendearen kontzientziazio eza dela eta, gure iritzia horretara bideratuko dute eta beraz, gure ondoan ditugun zinegotzi eta alkateei eskatu behar zaie gaia zabal dezaten eta hitzaldiak etabar antolatu, edota inguruko egoerari buruz IBAI enpresak egindako txostena argitaratu eta eztabaidarako bidea jar dezaten.

KARMELE

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea

Gibelka doaien Hizkuntz Komunitatea, bere kabuz bakarrik salba daiteke; salbatzeko borondateaz jabetzen bada eta hori gertatzeko, hartu behar dituen bitartekoak hartzera galerazten ez bazaio, jakina.

D. Fennell (Irlandarra)



Lehenik eta behin, hizkuntz minorizatu baten kontestuan, arrunt zabaldurik dagoen sineskeria bat baztertu behar dugu. Hau da, Estatuko/Baskongadetako/Nafarroako Gobernuak, berek bakarrik edota kanpotik etorritako jakitun baten laguntzaz baliaturik, erabilera normala arriskutan duen hizkuntz minorizatu baten oker guztiak moldatu nahi izanen dituztela eta hortarako dagoen denbora urrian, beharrezkoak diren neurriak eta bitartekoak hartuko dituztela. Zergatik?

Arrazoi sinple batengatik. Espainia bezalako Estatu Hedakor batean, lurralde osoan zehar (Nafarroa eta Baskongadak barne), boterea duen hizkuntz komunitateak, bertze hizkuntz komunitatea (euskalduna gure kasuan) hondatuz, deseginez eta suntsituz hedatzen bait du bere estatu organizazioa. Estatu antolaketa hori izan da, hain zuzen ere, Pirinoen bi aldetan hedatzen den euskal hiztunen komunitatea, oraingo egoera honetarat ekarri duena.

Horiek horrela, Estatu baten menpe dagoen Hizkuntz Komunitate minorizatuak, auniztan sikiera beronen esistentzia ere ezagutu nahi ez denean, (Nafarroako kasua lekuko), ezin dezake bere egoera larriaren zuzentzea, noizbait eman dateken gobernu aldaketa baten baitan utzi, izan ere hori gertatzeko, lehen-lehenik Hizkuntz Komunitate horren trinkotzea funtsezko eta beharrezkoa baita.

Eta Hizkuntz Komunitatea trinkotzea, bere izaite-kontzientzia hartzea da, eta horri esker, menderatzaileekiko duen indar harremana ere aldatzen hasiko da.

Hizkuntz kontzientziaz jaztea da hizkuntz komunitate batek duen premiarik funtsezkoena baldin eta bizirik segitu nahi badu, jakina.

Eta horixe da, hain zuzen ere, Bortzirietan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearekin lortzen ari dugun emaitzarik esperantzagarriena.

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA, HIZKUNTZ KONTZIENTZIAREN ISPILU?

Orainarte egindakoa aztertuz has gaitezke: 1987ko bukaeraldera, giza-sektore ezberdinetako hainbat



kolektibo eta pertsona elkarturik, (irakaskuntza, herri elkarteak, etabarrek), euskararen egoera une horretan zein zen aztertzeari ekin zioten, arazoaren larritasunaz kontzientzia kolektiboa hartuz. Handik sortuko zen, herritik, gero Bortzirietako Udalek babestu eta bultzatuko duten iniziatiba, hau da; Bortzirietako Euskara Batzordea eta bertako egoera sozio-linguistikoa zein den jakinez lanean hasi ahal izateko, SIADECOri agindutako azterketa eskaria.

Denborarekin, eztabaida sakontzen joan da eta Udalek hartutako bidea finkatzeko, Euskararen Mankomunitatea sortzeari ekin zaio; une honetan beronen Estatutuak Bortzirietako Udalek onartuak izaki, Nafarroako Gobernuak tramita ditzan prest daudelarik.

Bertzalde, urte honetan bertan funtzionatzen hasi ahal izateko, Bortzirietako Euskara Batzarreak aurkeztutako aurrekontua, -9.270.000 pztatakoa-, onartu egin dute Udalek.

Horrela bada, hizkuntz normalizazio bidean eman beharreko lau pausoetatik hasierako biak emanak daude; hots, Lehenik egoeraren kontzientzia kolektiboa hartzea, lagungarri den analisia eginez eta bigarrenik, Udal-administrazio mailan har daitezken bitarteko legalak jorratzen hastea.

Orain, normalizazioa egingarria eginen duten lege araudiak, -Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Araudia-, egin eta indarrean jartzea geratzen zaigu; segidan Botere Politikoa -Udal mailakoa bederen- Hizkuntz Komunitatearen beharretara egokituz.

Oraindik aunitz falta zaigu, euskararen normalizazio osoa lortzeko Bortzirietan baina, arazoari aurpegia ematen hasiak gaude. Beraz, bide zuzenetik goaz.

Teleiko

IKASTAROAK



Uda hurbil dugu eta urtero bezala, euskara ikasi, praktikatu eta bidenabar ongi pasatu nahi duenarentzat Bortzirietako eta Maldaerrekako AEK-k, bertze zentro batzuekin batera, hau da Arturo Campion AEK, Gasteizko AEK, e.a. barnetegi batzuk antolatu ditu. Errar behar aurtengoan barnetegi guztiak Nafarroan kokatu dituztela, Leitzan, Lesakan, Iturenen eta Bidarrain (azken hau mugaren bertze aldean) hain zuzen ere.

Ikastaro hauek denbora ezberdinekoak izanen dira, hau da 4,3 edo 2 astetakoak eta toki bakoitzean maila ezberdinak izanen dira: Leitzan eta Lesakan 5,6,7 eta 8. Urratsak, Iturenen 2,3 eta 4. urratsak eta Bidarrain EGA.

Ikastaro gehienak Uztaila eta Abuztuan izanen badira ere Bidarrain Iraila osoan jarraituko dute 5,6,7,8 urratsak emanez.

Ikastaro hauetan egunean 6 klase ordu emateaz gain bertze gauza batzu ere egiten dira; tailerrak, ateraldiak, kirolak e.a. . Bertze aldetik asteburuak ere antolatuak izaten dira (klaserik ematen ez bada ere)

Barnetegi hauetara joaten denak bertan zakua edo maindiriak ezik denetik izaten du: otordu guztiak, literak, bideoa, e.a. e.a. .

Beraz denbora gutxin euskara ikasi nahi duenarentzat aukera ezin hobea eskeintzen zaio aurtengo udan inguru honetan.

Eta informazio gehiago behar balu telefono honetara dei lezake Bortzirietako AEK 63 77 96 .

IRAINGO APAIZ GAZTEAREN KANTUTEGI ZAHARRA

Izen honekin argitaratu du Pamiela Argitaletxeak Patziku Perurena leitzar gaztearen laugarren liburua, iazko "Xalbador" lehiaketan saritua hain zuzen.

Irain herriko erortzear dagoen ermita zaharrean aurkitutako eskuizkribu baten jabe bezala aurkezten zaigu idazlea oraingoan. Aspalditan Iraingo apaiza izandakoaren eskuizkribua. Beraz, honi leporatuko dizkio euskera gozo, atsegin, bigunez, liburuan zehar aletuz doazkigun poemak.

Ez da sistima hori erabiltzen duen lehen aldia. Horrelako zerbait ikusi ahal bait genuen Joannes d'Iraolaren bilduman eta beste hainbeste Emily izeneko poema liburuan ere. Zergatik "anonimoa izateko borondatea, eta -Felipe Juaristiren hitzetan beti- endemas borondate hori bermatzeko ekintza etengabea"?

Sarreratik, poemak idazteko unean Patxirengan sortzen den transformazioa da gehien harritzen gaituena. Egunkarietan hain gogor, garratz, zorrotz eta zurrun azal ohi den inkisitorea, poemagile xamur gozo, amotz eta biguna bihurtzen zaigu. Bakarrik Gau saileko azken poeman, "Atzen gauean", "arrazoi zaharrek mugatzen dute gure bizitza astuna"... dioenean, igar dakioke protesta antzeko erdi ahuleria erdi kexatxo bat Iraingo apaizari.



Baina hiru ezaugarri nabarmenduko genituzke batez ere lan honetan: izadiaren ezaguera, irudimenaren aberastasuna eta erritmo zentzu lehergarria. Larogei inguru abere izen eta hirurogeitik gorako landare izen kontatu ditugu liburuan

zehar. Baina hori da guttiena, nahiz eta asko izan, bakoitzari eskeintzen dion ingurune eta lekutasunak zerbait gehiago adierazten bait digute: Abere horiek, landare horiek bere bizitza eta bihotzean betetzen duten txoko garrantzitsua. Bere poemak bizi ditzakeen neurri berean bizitzen du idazle honek abere, landare eta izadi osoa. Hori ez da inprobisatzen.



Irudimenaren aberastasuna esan dugu bigarren ezaugarri bezala. Bigarren postu hau ez da, noski, dezisiboa. Ezin esan arraultze ala oiloa zatekeen lehenik. Irudi eta metaforak, bata bestearen atzetik, baina kolpatzeke, beti oreka liluragarri baten barrenean:... "Neska itsua arguia biltzen amets zuriren lihoan". "Caio izuak gai illunean bide zuriac urratzen, aide garbico yoanetorritan Itsaso-Lurrac uztartzen"... Beti patxadan, lan errezean, xamurtasunean, poliki-poliki liluratzen.

Eta hirugarren, erritmoa. Hau liburuan zehar argi badago ere, azken atalean "Eta gaiñera gaiñeracoac", lehertzen da batipat. Egia aitortu behar badizuet, hauxe da hiru zatietatik gehien gustatu zaidana. Badakit idazlea ez dela bat etorriko nirekin puntu honetan, baina, hor konpon! Txistulari eta atabalaria dugu Patxi. (Eta pentsa noraino iritsi izango zaigun zenbait euskaldunen kultur eza, nahiz ikasiak izan, behin baino gehiagotan leporatu bait diote hori Patxiri zerbait peioratibo edo txarra bezala. Ikus bestela azkenaldian Diario Vascon egin dioten erreplikaren bat). Txistulari eta atabalaria dela esaten nuen eta badirudi atabala eduki duela eskuan lumaren ordez. Zenbait poemak musika jartzeko gogoa sortzen du, beste zenbaitek dantzan hastekoa. Metrika ugaritasun, onomatopeia, hitz-joku, gai arinak, dena erritmoaren zerbitzuan.

Badago aipa ganezakeen beste gauza asko, baina, adizue, eros ezazue liburua guri ere ez digute erregalatu eta.

Pattatta

Nork defendatuko ditu gure ikastola ttikiak?



«Arrain haundiak ttikia jan». Erran zaharra. Baina gertaera beti berria. Eta gaurko arrain ttiki baten istorio larria kontatuz natorkizue.

Herri ttikia, haur gutti. Herri Euskalduna, euskaraz bizi nahi eta bere ikastola ere antolatu zuen. Ahalbideak eskasak direnez, gela bakarra dauka, eskolaurreko haurrentzat. Zenbat neke eta kezka, ikastola ttiki horrengatik

jasanak! Ikastolaren Eguna, Ikastolaren sozioak, Batzordearen bilerak, Batzarreak, diru bilketak, gurasoen eta euskaltzaleen ibilerak, andereñoen saiaketa...

Ikastola ttiki horren inguruan, ikastola hori dela-ta, herriko euskal kontzientziaren berpiztearen bultzada: euskarazko klase "partikularrak" haurrentzat, eskoletan euskararen irakaskuntza sartzea, euskal kultur ekitaldiak Besta egunetan...Azkenaldian, eskoletako euskarazko irakaskuntzari babesa eman. Denak gauza "tikiak", ikastola ere ttikia denez, herria bera ere ttikia denez. Baina herriaren arabera, gauza "haundiak", ikastola ere herriaren arabera "haundia" den bezala.

Orain Nafarroako agintariek beren agindua aldarrikatu dute: "ikastola ttikiak Estatuaren eskoletan sar daitezela; 1990eko abuztuarako diru laguntza moztuko zaie". Eta gure ikastola ttikiak haur gutti dituenez, eta guraso gutti, eta diru iturri gutti, oihu egin du laguntza eske: "Nork defendatuko nau?". Eta bertze ikastolez oroitu da: "elkar zainduko dugu. Ikastola Elkarteak defendatuko gaitu denak. Denok elkar defendatuko dugu". Pentsamendu horrek lasaitasunezko hatsaldia eragin dio. Eta bihotza esperantza berriz bete zaio.

Baina, gizaxoa! Gure ikastola ttikia ez zen erran zaharraz oroitzen: "arrain haundiak ttikia jan" Nola ez zara, bada ikastola haundiak ere badirela ohartu? Bildu zen Ikastola Elkartea, Batzordea, Batzarrea, Lehendakaritza Mahaia, denak bildu dira. Eta ia denek elkar defendatu nahia agertu dute, gehiengoa ikastola ttikiena baita. Badira, ordea, haundiak ere, eta haundiak direnez gero, nahiz guttiago, arrazoi haundiak eman dituzte:

"Zer dira ba ikastola ttiki eta txar horiek, horiengatik guk gure diruak arriskatu ditzagun? Zer egiten dute, azken batean, ikastola ttiki horiek gure jendeak euskalduntzeko? zenbat euskaldun lortu dute?".

Eta haundien arrazoinamendu haundiagatik, Ikastola Elkarteak ezin du ikastola ttikia defendatu. Ikastola Elkartea ikastola haundiak defendatzeko da. Eta kanpotik euskaltzaleek emandako sosa, ikastola haundien laguntzeko da. Eta kitto.

Eta ni, gero, pentsatzen egon naiz: Herri ttikietako jendea ameslari hutsak ote gara? Pretenditzen ahal ote du herri ttiki batek bere ikastola, ttikia bedere, izatea? Zentzuzkoa ote da herri ttiki batek euskaldun nahi izatea, euskaraz bizi nahi izatea? Herri haundiei bakarrik dagokien eskubidea ote da hori? Erdaraz bizi beharra ote da, agian herri ttikiaren patua?

Nor defendatuko gaitu gu?

TXIPA

korrika



Joan den Apirilaren 15ean, goizeko 5ak aldera Korrika 6 (aintzineko egunean Iruñetik atera ondoren), Bortzirietatik pasatu zen.

Hori zela eta Bortzirietan hainbat ekitaldi antolatu ziren, hala nola, Korrika txikia, afariak e.a.

Erran behar jende aunitzek hartu zuela parte ekitaldi hauetan eta baita berauen antolaketetan ere. Horrela Bortzirietako ikastetxe guztiak (Sagrado Corazon ezik), bertze batzuekin batera bildu ziren eta apirilaren 14ean herri bakoitzean Korrika txiki bat antolatu ondoren Beran bildu ziren denek batera bertze km. batzu egiteko. 300en bat lagunek hartu zuten parte Korrika txiki honetan eta ondoren ez zen falta joku, trikitrixa, titiritero, ...

Honen ondotik, Lesakan, Arrano Elkartean Bortzirietako jendearen artean afari bat ospatu zen, 100 lagunek parte hartu zutelarik. Giro ezin hobea izan zen egun horretan Lesaka aldean, bertako txaranga, trikitilari eta abarrek alaiturik.

Horrela itxoin zitzaion bada korrika nagusiari eta 5ak aldera Sunbillatik bi kilometrotara eman zitzaion hasiera Bortzirietako ibilbideari. Ordu txarra izan arren jende aunitz animatu zelarik ohea utzi eta laster egitera.

Hasieratik azkeneraino beheko talde hauek erosi eta korritu zituzten Km.ak:

Arantza: Eskolak, Ekaitza Elkarteak.
Igantzi: Biltoki Elkarteak, Gazteek.
Etxalar: Gazteek, Ikastolak, Dantzariak.
Lesaka: Beti Gazteko jokalariak, Eroski, Tantirumairu Ikastolak, Irain Eskolak, Arrano Elkarteak, Agina taldeak, Bekoerrota lorategiak, Abeslari Taldeak.
Bera: Labiaga Ikastolak, Rikardo Baroja Eskolak, Udalak, Eskola Profesionalak, Gure Txokoa Elkarteak, Larun mendi taldeak.

Eta Bortziriak mailan : HBk, Apaizek, EHNE, ESK-CUIS eta LAB sindikatuek, Laminazionesko Iraupen Kutxak, AEK-k, eta JARRAI-k.

Km. hauekin, jendearen borondatearekin eta Korrika lagunekin milioi bat inguru bildu zen eskualde mailan espero zen baino gehiago hain zuzen ere.

Ekitaldi hau pasa eta gero Bortzirietako antolaketa batzordeek balorazio hagitz positiboa egin ondoren, afare bat izan zuten Berako Gure Txokoa elkartean.

JOSETXIKI

Gau iluna zen, goizeko bortzak aldean Joxetxikiren etxeko atean txirrina eta kolpeak aditu zirenean.

-Txirriiin, txirriiiiin, txirriiiiin !!, danba, danba, danba, danba !!!

-Zein da?, zein da? -Maritxuk, Joxetxikiren ama ate ondora hurbilduz ahots ikaratuaz erran zuen.

- Abran rápido, policia, policia...abran!

- Jaungoikoaren ama, polizia!, zer nahiko dute? Ene seme-alaba gaixoak, zer ez dieten eginen!, -pentsatu zuen bere baitan geletaruntz tristeki begiratzen zuen bitartean.

Han pasiloan zeuden denak, Migeltxo, Juan Joxe, Begotxu,... denak Joxetxiki ezik.

- Non dago Joxetxiki?, galde egin zien.

- Ohean gelditu da ama!, -erran zuen Migeltxok.

- Ez, ez leihotik atera da korrika eta presaka, neri besarkada bero bat eman ondoren. Nik ez nuen ateratzen utzi nahi, baina berak erran didanez hobe zuen zakurren eskuetan erori baino. Eta azkenez zuretzako muxu bat aginduz gero, abiatu da iluntasunaren bidetik!, zuzendu zion Begoñak negarretan lehertu aurretik.

- Jainkoak lagun dezan!!

Maritxuk ez zuen esaldia bukatu, atea polizien kolpeen eraginez zarata haundiz erori zenean. Berehala lau muturbeltz sartu ziren etxe barrura bere armak agerian zituztelarik.

Familia sukaldean bildu zuten eta beraien arteko burua ematen zuena karraxika eta galdezka hasi zitzaien, Joxetxikiren faltak sortzen zien amorroa ezin ezkutatuz.

- ¿Donde está Jose?, - contesten donde está Jose?

Erantzunik ez izaterakoan, Migeltxorengan hurbildu zen eta pistola-muturra buruan ipiniz ozenki oihukatu zuen:

- O hablais o será peor para todos en especial para tí vasco de mierda. Hablad, hablad antes de que os podais arrepentir!

Bere erdal hitzek mezpretxua eta gorrotoa adierazi arren, inork ez zuen tutik ere erran. Maritxu bere lekutik bortizki mugituz polizi-buruarengana hurbildu zen eta bere seme zaharrena eta pistolaren artean jarriz honela mintzatu zen:

- Joxe nere seme kuttuna ez dago etxean, alde egina da, Jaungoikoari eskerrak zuek harrapa ezin dezakezuen tokian! Bila ezazue ba beste tokiren batean hemen ez bait dago!

- Señora no hable en vazco, hable en español! - moztu zuen polizietakoren batek.

Burua ematen zuenak ixilerazi zuen esanaz:

- Vámonos, no está aqui! Pero ya le atraparemos! En cuanto a usted señora, más le valdría callarse y no sacar la cara a un terrorista!

- Hori zuk esaten duzu, baina guretzat eta euskaldun guztientzat, terrorista bakarrak zuek zarete, zuek ekarri bait dituzue Euskal Herrira ikara eta bildurra, zuek erein bait dituzue euskal lurrean gorrotoaren haziak. Eta jakin ezazu arrotza, gu euskaldunok ez garela gure seme alabez lotsatzen eta gutxiago oraindik gure aberriaren askatasunaren alde borrokatzeagatik bilatzen dituzuenean! Ez, euskaldunok gure askatasunezko etorkizunaz sinisten bait dugu!

Espainiar poliziek ez zuten ez ulertu eta ez aditu egin, korrika eta presaka atera ziren eta beren kotxetan sartuz alde egin zuten buztana anka tartean eta zaunkada oraindik ahoan zutelarik.

Joxetxiki alde egina zegoen bere hatzapar erahiltzaileetatik mementuz libre.

****

Urteak igaro ziren eta Joxetxikiren izena leienda bihurturik zegoen, leienda eta etorkizun libreago eta zoriontsuago baten itxaropena. Euskal borrokaz hitzegiterakoan berehala sortzen zen bere izena, harrotasunez euskaldunen ezpainetatik, eta ezinaren gorrotoz espainiar zakurren muturretatik.

Maritxu pozik eta harro zegoen alde egin zuenetik inoiz gehiago ikusi ezin izan zuen semearengatik. Bere gaueroko otoitzak berarentzat ziren eta baita bere goizeroko lehenengo gogoetak. Bera bait zen bere seme ttikia, kuttuna, bere euskalduntasunaren kutxa eta babesa.





Bainan nahiz eta Maritxuren bihotza oraindik gazte gaztea izan, urteak ez ziren alperrik pasatzen eta zegoeneko bazituen larogeitahiru urte luze eta astunak.

Bapatean gaixorik jarri zen, zaharminak jota. Ezin zuen ohetik jeiki eta bertan sumatzen zuen heriotzaren aurretik, desio bakarra zeukan bihotzean sarturik: Joxetxiki bere seme maitea ikustea. Bere senideek ez zekiten zer egin. Nola bere Maritxu gaixoaren azken ametsa?

Migeltxo eta Juan Joxe, bertze alderantz abiatu ziren bere bila, baina alperrik ez bait zuten inondik ere ikusi egin. Holako batetan Joxetxikiren lagun batekin topatu ziren eta amaren gaitza eta desioaren gainean jartzeko agindua emanez itzuli ziren esperantzaz beterik, etxeko bidetik.

Baina alperrik, egunak pasatzen ziren eta ez bait zen inondik Joxetxikiren berririk etortzen. Polizia Maritxuren gaixotasunaren gainean zegoen eta gau eta egun inmoki bigilatzen zituzten Maritxuren etxera zeramaten bide guztiak. Usaiean zeuden!

Egunak luzeak ziren eta gauak luzeagoak oraindik. Maritxuk bizi nahi zuen behintzat bere semea berriz ikusi arte, baina nahiz eta horrela desiratu, ezin izan zion gaitzari irabazi eta azkenean heriotz itzalak deitu egin zion betirako.

Maritxu hilik zegoen zerraldoan sarturik eta kanposantuko bidean, baina hiru seme alaben oroimenean bizirik zirauten amatxoren azkeneko hitzek:

" Joxetxiki seme maitea, ez zara niregana etorri baina ongi dakit ezin izan duzula arrotz otsoek bidea oztopatu egin dizutelakoz.

Zaude lasai seme, ni banoa baina Euskal Herriak eta Euskal arimak bizirik segituko dute, zuri eta zu bezala euskal borrokan sarturik zabiltzatenoi esker!

Euskal lurrean zuhaitz bat zutik dagoen bitartean, euriak Euskal lurrak bustitzen dituen bitartean, eta aberrian euskaldun gudari bat dagoen bitartean, Euskal Herria biziko da, eta Euskal Herria bizi den bitartean nere gogoa bertan, Euskal lur gainean egonen da. Askatasunaren egunean nitaz gogoratu zaitez seme. Agur maitea, egun haundirarte!!"

Malkoek denon aurpegiak bustitzen zituzten eta saminak denon bihotzetan kolpatzen. Kanposantuko sarreran jendetza haundia zain zegoen Maritxuri azken agurra eman nahiean. Hilobi aintzinean apaizak "Aita Gurea" errezatu zuen, eta zerraldoa sartu aurretik mutil sendo bat atera zen jende mordotik eta hurbilduz xulufrin gorri xorta bat jarri zuen kaja gainean.

Joxetxiki zen, Maritxuren seme kuttuna, euskal borrokaren oihartzun ozena, etsaien ikara eta bildurra. Eta han zegoen, zakurrak trufaturik, bere amari azken agurra emateko etorria.

Belaunikatuz, zerraldoa muxukatu zuen bere malko frexko-goxoz egurra buztiz, bere ahotik honako hitzak atereaz:

" Agur amatxo, ezin izan zaitut hil aurretik azken aldiz ikusi, baina hemen nago zure aurrean nire azken muxua emateko. Agur ama laztana, agur!"

Anai-arrebak negar zotinka hurbildu zitzaizkion ongi etorria ematera. Ixiltasun haundia zen. Begotxuk muxu haundi bat eman zion eta anaiek besarkada bero, luze eta sentikorra. Jendetza ixilik zegoen kanposantuetako ixiltasunez, alaitasuna eta tristura denon baitan nahasturik sumatzen zelarik.

Bapatean bala baten danbadak kanposantuko ixiltasuna urratu zuen, eta Joxetxiki amaren zerraldo gainean erori zen azken arnasa emanez. Jendea karraxika eta korrika hasi zen, ezkutaturik zeuden arrotz poliziek tiratzen zuten bitartean.

- Fuera todos de aqui, fuera todos del cementerio!!!, -hots egiten zuten beren gorabozgailuetatik.

Ordutik honera denbora luze igaro da, Joxetxiki eta Maritxuren ametsak ez dira bete oraindik, Euskal Herriko arbolaren itzala bi arrotzen artean banatzen bait da oraindik, baina askatasunaren aldeko borrokaldia aintzinera darrai eta aurrera jarraitzen duen neurrian euskal arimak gero eta indartsuago pizten du gure jendeen bihotzetan.

Bai, euskal haziak bizirik dirau, bizirik eta itxaropenez harroturik, Euskal Herria loratzera kondenaturik dagoela dakielako.

Edozein unetan, edozein lekutan,... adi daiteke Joxetxiki eta Maritxu oroitzen dituen euskal kanta goxo, xarmangarria. Eta baita edozein unetan eta edozein lekutan ere,... aditzen dira askatasuna ekarriko diguten euskal borrokalarien tiro danbadak lehorrak.

Karlox Barrentsoro

Inguru giroa

Bortzirietan

Lekua ezagutzen ez duen batek Bortziriak osatzen duen herriak paretsuak izanen direla pentsa dezake. Garai batean Lesakako fabrika oraindik ez zegoenean hala izanen zen.Herriak osatzen zituzten etxeak, elizen eta enparantzen inguruan eraikiak gutti izanen ziren, baserrietan aunitz bizi bait ziren.

Herri bakoitza kokapen berezia izateagatik desberdina zen baina itxuraz eskeintzen zuten estetika nahiko paretsua izango litzateke. Baina herri horietatik batean fabrica sortu zen; Beran ere koka zitekeen baina ez Igantzin, Etxalarren eta Arantzan, Lesakan baizik. Horren ondoriorik nabarmenena populazioaren hazkundea zen dudarik gabe. Bertze tokietatik lan egitera etorri zirenak bortzirietan jarri ziren herriak haunditzen, lanpostuaren ondoan bizi nahi zutelako, normala denez. Ondorio garrantzitsu honek, herrien hirigintza arautegia eskatzen zuen.

Etxe berriak eraiki dira herrien itxura aldatuz fabrikak dituztenak batez ere eta etxe modernoagoak eraiki, Igantzi, Bortzirietako herri txikiena eta Arantza gutti aldatu dira, egindako eraiketak lehengoak bezalakoak egin direlako, hau da, le-



hengo etxeen egitura tipikoa gutti gora behera segituz. Lesaka eta Berako eraiketa aunitzekin ez da hori gertatzen. Inguruko mendietatik herri hauek begiratzen baditugu, fabrikez konturatzen gara berehala baina ez gara horretaz hariko lantegi bakar bat ere polita ez delako eta are guttiago herrian bertan kokatua baldin badago; etxe gehienak bi pisuetako altura izan arren gaur egun altuera gehiagoko eraiketak egitea ez baita libre, hiru, lau eta bost pisutako etxe bizitzak, kolore desberdinez pintatuak, batzu bertzeak baino zabalera haundiagokoak, ikus ditzakegu. Kontutan hartzen ez diren hainbertze gauzek, herrien itxura desagertzen da. Gero eta gehiago haunditzen direnean, herriak gehiago itsusten dira.

Herriak itzuraz sobera ez aldatzeko, etxe berriek eraikitzerakoan zenbait baldintza bete behar dute; orain arte egin direnek arautegia segitu izanen dutela suposatzen dut, baina (edo) arauak berritzen dira edo herrien singulartasuna galduko da.

Etxalarren berriz, azken eraiketa ezik, etxe bizitzen egitura mantentzen da. Etxe gehienak familia batekoak dira. Beti aritua izan dut etxe horietatik aunitz gipuzkoarrenak direla, eta egia errateko, nahiz eta egia izan, herriari bai itxura polita jartzen diotela.

Lesaka.

Bortziriak bertatik ateraz eta inguruetara ailegatuta, itxuraz, Etxalarko baserriak bezain ongi moldatuak ez direla aunitz aurkitzen erran dezake, gehienak berrituak eta zurituak baitdaude.

ABERATSAK...


Aberatsak oilaskoa jaten zutenean egunero, lujoa zen.
Pobreak oilaskoa jaten dutenean egunero, nazkagarria da.
oilaskoa hormonez hazia
ez dago, beatzerik
Aberatsak kotxea zutenean, harrigarria izaten zen.
Pobreak kotxea dutenean, aspergarria da.
Aberatsak hondartzara joaten zirenean, ikusgarria izaten zen
Pobreak hondartzara joatean, inbasio bat da
Aberatsak drogatzea ikusmina izaten zen
Pobreak drogatzen direnean, gaitza nazionala da

A POBREAK





BERDIN JARRAITZEN DUGU.

②

SUNBILLAN JOKATUTAKO KANPORAKETAN, ELIZAGOIEN NAGUSI.

Aurten, Nafarroako Bertsolari Txapelketa hiru kanporaketatan jokatu zen, Landibarre, Leitza eta Sunbillakoak hain zuzen ere, lekuan lekuko bertsolariak bilduz. Gero, Baigorriko finalean, jakina denez, Ernest Alkatek eraman zuen txaloz eta txistuz hornituriko txapela, erabakia ez bait zen bat etorri jendearen iritziarekin, zeinak Arzallus, Mendiburu eta Ezpondaren artean zekusan irabazlea.

Aipatutako banaketaren ondorioz, Landibarreko saioan Iparraldeko bertsolariak bildu ziren, Leitzan inguru hartakoak eta Sunbillan berriz Baztan-Malerreka-Bortzirietakoak. Hau onerako edo txarrerako izan zen zalantzan jartzekoa da guttienez. Arrazoi gisa azaldutako argudioetako batek, hizkeraren aldetiko zailtasunak saihestearren tokian tokikoak aritzeak, baitu bertze alderdia ere, noizbait batzuk bertzeen mintzairara ohitu beharko dugula alegia.

Bertzalde, mailari dagokionean, ikusi ahal izan zen Sunbillakoa gertatu zela apalena. Hala ere, aipagarria izan zen bertan Elizagoien eta Euxebio Fagoagak egindako lana.

Ernest Alkat



Manolo Arozena



Txomin Ezponda

Finalean aritu ziren bertsolariak

9 Libera **175 Pzta.**